



Marketen ondoan Bergara eta Arregi kontseilariak izan ziren.

C. VILLAGRAN

EAJ Donostiarako zenbait proiektu Gobernuarekin ari da aztertzen

P.A. / DONOSTIA

Donostiari dagozkion zenbait gai aztertu ditu Antton Market, Donostiako EAJko hautagaiak Joseba Arregi eta Josu Bergara Gasteizko Jauriaritzako sailburuekin. Kultur eta Garraio arduradunekin batera izan zen atzo prentsurrekoan alkatetegiak, eta Donostiako udaleko gobernu taldeak hiri honetarako bideratu duen Plan Orokorra ezingo dela bere osotasunean burutu esan zuen. «Errealitatea dena eta fikzioa izan daitekeena berezi behar dira plan honetan» adierazi zuen. Marketen ustez, plan honek «gestio arazo handiak» ditu.

EAEko Gobernuak Donostiako udalarekin izan duen kolaborazioaren alde lanean jarraituko duela esan zuen Joseba Arregik, baina «ametsa eta egin daitekeenaren artean beharrezkoa den orekatik». Plan Orokorren inguruan egin zituen adieraz-

pen hauek. Bere ustez, plan horrek «aukeraketa bat egitea eta lehentasunak finkatzea» eskatzen du.

Kultura eta Turismo Sailak Donostiako udalarekin izan dituen harremanak onak izan direla esan zuen Arregik, baina hauteskundeetan ostean, «gehiengo berriarekin», harreman horiek sakontzea espero duela. Gasteizko sailburuaren esanetan, «arlo honetan ez da ezer egon instituzio arteko kolaborazioaren ondorio izan ez dena».

Donostiako lehentasuna duten gaien artean saneamentu arazoa, autobus geltokia eta hiria Gros-eko itsasertzan amaitzea dela azaldu zuen Marketek, eta plan horien azterketan ari dela Josu Bergara Garraio sailburua. Lehenengoari dago-kionez, MOPUrekin kontaktuan dagoela esan zuen Bergarak, eta Donostiako autobus geltokiak, RENFE eta topoarekin bat egiteko aukera aztertzen ari direla.

Eskuinaren gobernu eragozten Saiatuko da Nafarroako EE


IRUNEA

Ramon Arozarena Nafarroako EEko zerrendaburuak, UPN hilaren 26ko hauteskundeetan alderdi bozketatuen izan daitekeela eta «eskuinaren gobernu eragozteko EEk ahalaginak egingo dituela» adierazi zuen atzo.

Bere esanetan, «hurrengo Gobernuak gehiengo aurrerakoi batetik jaio behar luke, eta horretarako alderdiok akordio programatik batera heldu behar dugu». EE akordio hori lor dadin saiaturako PSOE eta Arozarenak eta «horretarako PSOE alternatiba horren alde azaltzea ezinbestekoa» dela gaineratu.

Azken lau urteotan Parlamentuan egin duen lanak hauteskundeetan bere fruituak jasoko dituela uste du 1987az geroztik Nafarroako EEko idazkari nagusia denak. Egun, Arozarena da EEko parlamentari bakarra eta oraingoa ere jazarleku hori mantenduko duelakoan dago. Amaitu berri den legegaldian, «PSOERI oposizioa egin diot, ezkerretik eta euskalzaletasunatik» dio.

«Ongizaterako autogobernu» lelopean aurkeztu den egitasmoan, aberastasuna, lana eta zergen bana-



Ramon Arozarena.

JOXE

keta bidezkoa defendatzen du EEk. Halaber, etxebizitza eta zerbitzu publikoen hobekuntza eta euskararen normalizazioaren alde azaldu da alderdi ezkerriarra.

UPN eta PPren bateratzeak. EEkoaren ustez, «bipolarizazioa dakar. Alderdi honek, eskuinarekin lau urtez paktatu ondoren, orain eskuin hori mamu izugarri bat bezala aurkeztu nahi du».

LHLren erreforma bultzatuko du EAK

KOLDO GOITIA / BILBO

Joseba Azkarraga, EAK Madrilen duen parlamentariak, Lurralde Historikoen Legea (LHL) erreformatu behar dela azaldu zuen. «Gaur egungo LHLk dituen disfuntzioak zuzentzeko beharrezkoa da erreforma egitea. Ezin daiteke izan erreforma tekniko hutsa. Instituzio arteko orekin erlazionaturik dagoenez esanahi politikoa izango du», esan zuen EAKo bozeramaleak.

Joseba Azkarragak Bilbon emantiko prentsurrekoan esan zuenez, LHLk ez ditu zehazten instituzio bakoitzaren betebeharrak. «Instituzioek bete behar dituzten paperak ez daude finkatuta eta honek burokraziaren hedapena eta eraginkortasunik eza dakar. Era berean hiritarrek ez dakite nora jo beraien arazoak konpontzeko, nahastuta dabilta», adierazi zuen EAKo parlamentariak.

Dena dela, Joseba Azkarragak LHLk ondo funtzionatu duela onartu

zuen, «baina garai batean gaizki funtzionatu zuen eta Legea berbera zen», esan zuen EAKo bozeramaleak. «Guk adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundian beste instituzioengandako leialtasuna gordez jokatu dugu eta horregatik ondo funtzionatu du LHLk», amaitu zuen.

LHLren erreforma Estatuak udalaxe eta Foru Aldundiei ezarritako kompetentziak errespetatuz egin behar da, Joseba Azkarragaren ustez.

HAUR HORI BIHAR BERTAN HIL DAITEKE

Goseak, hotzak, botikarik gabe... Solidaritate ezagatik.



Eta zure esku dago.

Gure asmoa da gogoan argi izan dezazun zure esku dagoela giza bizi bat salbatzea bezalako gauza ederra.

Herri kurduak zure laguntza behar du. Pairatzen duen egoera dramatikoari aurre egiteko baliabide ekonomikoak behar ditu, haurrentzako janaria, kanpin dendak, estalkiak, botikak... lortzeko.

Diru laguntza bideratzeko modua jakin nahi baduzu, jarraian zehazten dizkizugun irati-programetan esango dizute:

— Radio Euskadi, "Florencio Torrelledo" 7.45 orduetan.

— Donostiako Herri Irratia, "Fernando San Martin" 12.00 orduetan

— Bilboko Herri Irratia, "Javier Reino", 14.00 orduetan

— Radio Nerviñ, "Joseba" 16.00 orduetan

EUSKADI KURDISTANEN ALDE - SOLIDARIDAD CON EL PUEBLO KURDO